

# Euskadin tokiko Merkatu eta Azokak antolatzeko Gida

Eusko Jaurlaritzak Euskadin Tokiko Azokak eta Feriak Antolatzeko Gida argitaratu du.

## GIDA IKUSTEKO

([http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guia\\_mercados\\_locales/eu\\_def/adjuntos/GUIA\\_mercados\\_locales\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guia_mercados_locales/eu_def/adjuntos/GUIA_mercados_locales_eu.pdf))

Hauek dira, besteak beste, gida horren helburuak:

1. **Udalei** nekazaritzako elikagaien azokak eta feriak antolatzen laguntzeko **tresna praktiko bat** ematea.
2. Postuen eta elikagaien **baldintza higieniko eta sanitarioak** betetzen direla bermatzea.
3. **Tokiko produktuei eta Euskadiko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategien bideragarritasunari** babesa eta indarra ematea.
4. **Euskal herritarrek kontzientziatzea** tokiko produktuek eta horiek zuzenean saltzeak duen balioaz eta garrantziaz.

Nekazaritzaren, **osasun publikoaren eta kontsumoaren alorretan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta Foru Aldundien** artean egin dute, HAZI (<http://www.hazi.es/eu/>)k, ELIKA (<https://www.elika.eus/>)k eta **EUDEL** (<http://www.eudel.eus/eu>)ek lagunduta.

Gida **kaleko salmenta** mota guztiei aplikatzekoa da, eta hainbat kapitulutan egituratuta dago: kontuan izan behar diren herritarren segurtasunerako baldintzak, kontsumitzaileak babesteko araudiak ezartzen dituen eskakizunak, hala postuek nola salgai jarritako elikagaiak bete behar dituzten baldintza higieniko eta sanitarioak, etab.

**ELIKA** - Granja Modelo, z/g. 01192 - Arkautz (Araba) - Telefonoa: 945 122 170 - Faxa: 945 122 171 - [berri@elika.eus](mailto:berri@elika.eus) (mailto:berri@elika.eus)